
GRAL : **POBREZIA ENERGETIKOAREN ETA PERTSONEN OSASUN-
EGOERAREN ARTEKO ERLAZIOAREN AZTERKETA
SEXUAREN ARABERA, ESPAINIA, FRANTZIA ETA
ERRUMANIA, 2009 ETA 2017 URTEEN ARTEAN**

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	1
2. POBREZIA ENERGETIKOAREN DEFINIZIOA	2
3. METODOLOGIA	3
3.1 Datuak.....	3
3.2 Kalkuluak	4
4. POBREZIA ENERGETIKOAREN AZTERKETA OROKORRA	7
4.1 Pobrezia energetikoaren azterketa orokorra Eespainian	7
4.2 Pobrezia energetikoaren azterketa orokorra Frantzian	8
4.3 Pobrezia energetikoaren azterketa orokorra Errumanian.....	9
4.4 Hiru herrialdeen pobrezia energetiko orokorraren konparazioa	9
5. POBREZIA ENERGETIKOAREN AZTERKETA SEXUAREN ARABERA	11
5.1 Pobrezia energetikoaren azterketa sexuaren arabera Eespainian	11
5.2 Pobrezia energetikoaren azterketa sexuaren arabera Frantzian	13
5.3 Pobrezia energetikoaren azterketa sexuaren arabera Errumanian	14
5.4 Hiru herrialdeen sexuaren araberako pobrezia energetikoaren konparazioa	16
6. PERTSONEN OSASUNAREN AZTERKETA POBREZIA ENERGETIKOAREN ARABERA ...	20
6.1 Pertsonen osasunaren azterketa pobrezia energetikoaren arabera Eespainian.....	20
6.2 Pertsonen osasunaren azterketa pobrezia energetikoaren arabera Frantzian	22
6.3 Pertsonen osasunaren azterketa pobrezia energetikoaren arabera Errumanian....	24
6.4 Hiru herrialdeetako osasun-egoeraren konparazioa, pobrezia energetiko mailaren arabera	25
7. ONDORIOAK.....	27
8. ERANSKINAK.....	29
9. ERREFERENTZIAK	63

1. SARRERA

2020ko martxoaren 14an Covid-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko alarma-egoera deklaratu zen estatuko lurralde osoan, koronabirusak eragindako osasun larrialdiari aurre egiteko. Berri horrekin etxera sartu ginen, hasieran hamabost egunerako, baina, azkenean, bi hilabeteko konfinamendu totalen bihurtu zen. Izan ere, urtebete ondoren murrizketa sozialekin eta "normaltasun berrian" bizi gara. Mundu osoan ezarri izan diren osasun-neurriak gizartearen ongizateagatik eta arreta guztia osasunean jarriz aplikatu izan dira.

Beraz, gaur egun osasunak gizartean duen garrantzia jakinik, txosten honetan gai honi buruzko analisia egin da, pobrezia energetikoarekin izan dezakeen lotura aztertuz. Gainera, gizon-emakumeen osasun egoeraren artean alderik dagoen eta energia-pobreziak berdin eragiten dien aztertu egin da.

Zehazki Espainia, Frantzia eta Errumania herrialdeetako azterketa egin da Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioak egindako Nazioarteko konparazioak, Osasun Sistema Nazionalaren 2017ko txostenean oinarrituta. Txosten horretan, 2017an Europako herrialde bakoitzaren gastu sanitario osoaren datuen konparaketa egiten da, hainbat ezaugarrien arabera. Kasu honetan, Barne Produktu Gordinaren ehunekoari erreparatuz aukeratu dira herrialdeak, Frantzia, osasun-gastu handiena duen herrialde gisa (% 11,1) eta Errumania gastu txikien (% 5,0). Espainiako gastu sanitario osoa, aldiz, % 9,1 da BPGren ehunekoaren arabera.[1]

Bestalde, Espainiako 2008ko krisi ekonomikoa ere kontuan hartu nahi izan da, eta egoera hori gaur egungoarekin alderatu, horregatik, 2009 eta 2017 urteetako analisia egin da. Jakina da 2017 urteko datuak ez direla Covid-19ko krisiaren adierazgarriak, baina 2020ko datu-baseak ez daude eskuragarri oraindik, hortaz, interesgarria izan daiteke txosten honetan egin den azterketa etorkizunean errepikatzea.

2. POBREZIA ENERGETIKOAREN DEFINIZIOA

Pobrezia energetikoa kontzeptu berri samarra dela esan daiteke, izan ere, lehenengo definizioa Brenda Boardman Oxfordeko Unibertsitateko ikertzaileak eta pobrezia energetikoaren aurkako aktibistak sortu zuen 1990eko hamarkadaren hasieran Erresuma Batuan [2]. Definizio horretan, errenta eskuragarriaren % 10a adierazten zen muga gisa energiaren zerbitzu-kopuru egokia lortzeko; geroago, etxebizitzaren erregimen termiko egokia ere lotu zitzaion definizio horri. Hala ere, 2000. urtera arte ez zen indarrean egon arazo honi aurre egiten zion legerik eta lehenengo aldiz Britania Handian egin zuten "Warm Homes and Energy Conservation" legearekin [3].

Esan beharra dago, nahiz eta normalean pobrezia energetikoa berokuntzarekin erlazionatzen den, beste energia-eskari batzuk kontuan hartu behar direla ere bai, hala nola etxetresna elektrikoak, argiztapena edo hozkuntza.

Denboran zehar kontzeptuaren definizio zehatz bat adostu ez bada ere, hainbat ikerlarik lan egin dute pobrezia energetikoa definitzeko proposamenak egiten, hala nola Bouzarovski eta Petrova 2015ean [4] edo K Li, B Lloyd, XJ Liang eta YM Wei 2014an [5].

Gaur egun, Asociación de Ciencias Ambientales (ACA) dio etxe bat pobrezia energetikoan dagoela etxe beharrak asetzeko behar adina energia ematen duten zerbitzuak ordaintzeko gai ez denean edota diru-sarreraren zati handi bat etxebizitzaren energia-faktura ordaintzeko erabili behar duenean.

Etxebizitzen pobrezia energetikoaren egoera ikertzeko familiaren errenta, energiaren prezioa eta etxebizitzaren kalitatea aztertzen dira eta hiru puntu hauek arazoari aurre egiteko politika publikoak definitzeko sarrera-puntuak ematen dituzte: errenta-transferentziak, tarifa sozialak eta efizientzia energetikoa, ACAREN arabera.[6]

3. METODOLOGIA

3.1 DATUAK

Pobrezia energetikoa neurtzeko hiru adierazle nagusi erabili dira azterketa hau egiteko:

- * Elektrizitatearen, uraren, gasaren eta abarren fakturak berandu ordaintzea azken hamabi hilabeteetan.
- * Etxebizitzak arazo hauek izatea: itoginak, hezetasuna paretetan, zoruetan, sabaietan edo zimenduetan, edo usteldura zoruetan, leiho edo ateen markoetan.
- * Etxeak neguan etxebizitza tenperatura egokian mantentzeko arazoak izatea.

Pobreziaren markatzaile horiek kuantifikatuz emaitza numerikoak lortu dira Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) egindako Bizi Baldintzen Inkestako (ECV) datuetatik abiatuz.

Bizi Baldintzen Inkesta (ECV) Europako Batasuneko herrialde guztietan urtero egiten den eragiketa estatistikoa da eta Europar Batasuneko estatu kide guztientzat harmonizatutako irizpideetan oinarritzen da. Helburu nagusia errentari eta bizi-baldintzei buruzko estatistikak sistematikoki sortzea da, errenta, pobreziaren eta gizarte-bazterketaren maila eta osaerari buruzko datu alderagarriak eta eguneratuak emanez estatu eta Europa mailan, Trantsizio Ekologikorako Ministerioak pobrezia energetikoaren aurkako estrategia nazionalean azaltzen duen moduan. [7]

Baina, adierazle horien aukeraketaren eragozpenak ere azpimarratu behar dira. Adibidez, ECVn oinarritutako adierazleak informatzaileek inkestan emandako erantzunetan oinarritzen dira, eta norbanakoak aldagaien gainean duen pertzepzioak eragin handia du.

Beraz, ECV abiapuntu izanik, urtero hainbat datu-base sortzen dira herritarren erantzunak pilatuz. Datu-baseak lau fitxategiz osatuta daude eta bakoitzaren edukia ondoren azaltzen da, *Encuesta de Condiciones de Vida* 2016ko inkestako erabiltzaileen zeharkako fitxategian aipatzen duen moduan [8]:

- D fitxategia: etxeko oinarrizko datuak. Fitxategi honetan etxea identifikatzeko informazioa dago, geografikoki aurkitzeko, eremuko urbanizazio maila, inkesta urtea eta ponderazio faktoreak.
- R fitxategia: pertsonaren oinarrizko datuak. Fitxategi honetan honako hauek identifikatzeko informazioa dago: pertsona eta haren etxea, ponderazio faktoreak, informazio demografikoa, jarduerarekiko egoera, familien identifikatzaileak, haurrak eskolara joaten diren ordu-kopurua, etab.
- H fitxategia: etxearen datu zehatzak. Fitxategi honetan, etxearen oinarrizko datuak (HB aldagaiak), etxebizitzari buruzko datuak (HH aldagaiak), gizarte-bazterketari buruzko datuak (HS aldagaiak), errentari buruzko datuak (HY aldagaiak), materialaren gabeziari buruzko datuak (HD aldagaia), zerbitzuak eskura izateari buruzko datuak (HC aldagaiak) eta beste aldagai osagarri batzuk daude.

- P fitxategia: helduen datu zehatzak. Fitxategi honetan, pertsona sailkatuari buruzko informazio xehatua dago, honela: pertsonaren oinarritzko datuak (PB aldagaiak), hezkuntza-datuak (PE aldagaiak), osasun-datuak (PH aldagaiak), laneko datuak (PL aldagaiak), errentari buruzko datuak (PY aldagaiak), material gabeziari buruzko datuak (PD aldagaiak) eta zerbitzuak eskura izateari buruzko datuak (PC aldagaiak).

Egin nahi diren kalkuluaren arabera, fitxategi bateko edo besteko datuak hartzen dira. Analisi honetan, nagusiki, H eta P fitxategiekin lan egin da.

3.2 KALKULUAK

3.2.1 Pobrezia energetiko orokorra

Espainia, Frantzia eta Errumaniako pobrezia energetikoaren kalkulua egiteko "Metodo sendoa" erabili da, *Alkire eta Foster* 2011an [9], *Chakravarty and D'Ambrosio* 2006an [10] edota *Aristondo eta Onaindia* 2018an [11] egindako azterketetan oinarrituz. Aurreko atalean aipatu den moduan, pobrezia energetiko orokorraren analisiak hiru faktore hartzen ditu kontuan, eta horiekin aplikatu da kalkuluatarako metodoa. Aldagai hauek etxeetako egoerari buruzkoak direnez H fitxategian kokatzen dira. Beraz, etxeen pobrezia energetikoa kalkulatzeko ondorengo galderen erantzunak jaso dira:

- Atzerapenik egon al da elektrizitatearen, uraren, gasaren eta abarren fakturen ordainketan azken 12 hilabeteetan?
- Badu etxebizitzak itoginik, hezetasunik hormetan, zoruetan, sabaietan edo zimenduetan, edo usteldurarik zoruetan, leihoen markoetan edo ateetan?
- Posible al da etxea tenperatura egokian mantentzea neguko hilabeteetan?

Galdera horien erantzunak "1" edo "0"-ra bihurtu dira kalkuluak egin ahal izateko. Pobrezia energetikoari dagokionez erantzun positiboek 1 zenbakia ezarri zaie da eta negatiboek 0, hau da, 1 zenbakiak gabezia adierazten du. Metodoa zehazki 3-1. taulan ikus daiteke:

Galdera	Erantzunak	Ezarritako balioa
Atzerapenik egon al da elektrizitatearen, uraren, gasaren eta abarren fakturen ordainketan azken 12 hilabeteetan?	Bai	1
	Ez	0
Badu etxebizitzak itoginik, hezetasunik edo usteldurarik?	Bai	1
	Ez	0
Posible al da etxea tenperatura egokian mantentzea neguko hilabeteetan?	Bai	0
	Ez	1

Taula 3-1. Metodo sendoan neurtutako aldagaiak

Metodoaren adierazpen matematikoa aurretik aipatutako lanetan dago oinarrituta. Kasu honetan, pobrezia energetikoaren adierazle kopurua aztertuko da $k \geq 2$ izanik, eta etxe kopurua $n \geq 2$ izanik. Izan ere, $k = 3$ izango da eta kasu guztietan finko mantenduko da, aldiz, n aldagaiak urte eta herrialdearen arabera balio ezberdinak izango ditu kasu bakoitzean. Beraz, etxebizitza bakoitzari bektore bat esleituko zaio hiru aldagaiekin, aldagai bakoitzak erantzun binarioa duelarik (1 edo 0):

$$x_i = (x_{i1}, x_{i2}, x_{i3})$$

Etheen kantitate i dimentsioarekin adierazi da, non $i=1,2,..,n$ den. Pobrezia adierazleak dimentsionatzeko j gehitu da, $j=1,2,3$ izanik. Era honetan $X = (x_{ij})$ gabezia matrizea lortu da eta $x_{ij} = 1$ i etxeak j adierazlearen gabezia adieraziko du, aldiz, $x_{ij} = 0$ gabezia eza.

Ondoren, etxe bakoitzaren pobrezia-balioa, d_i , kalkulatu da. Pobrezia-balioa, d_i , etxebizitzak izan ditzakeen balioekin osatu da, eta ikerketa honetan pobrezia hiru adierazleek pisu bera dutenez pobrezia-balioak asko jota 4 balio izan ditzake, Lor daitezkeen balioak hauek dira: $D=[0,1,2,3]$. d_i -ak honako ekuazioarekin lortu dira:

$$d_i = \sum_{j=1}^k x_{ij}$$

Jarraitzeko, pobrezia-muga (m) finkatu da eta d_i balio guztiak muga hori gainditzekotan pobre moduan sailkatu dira etxebizitzak. Beraz, $0 \leq m \leq 1$ eta $d_i \geq m$ bada etxeak pobretzat jo dira eta 1 balioa esleitu zaie, aldiz, $d_i < m$ bada etxeak ρm funtzioa erabili da:

$$\begin{aligned} \rho m(d_i) &= 1 & d_i &\geq m \\ \rho m(d_i) &= 0 & d_i &< m \end{aligned}$$

Hau jakinda, $d_i(m)$ kalkulatu daiteke hurrengo ekuazioarekin:

$$d_i(m) = \rho m(d_i) \cdot d_i$$

Metodologia honekin energetikoki pobre diren etxeak identifikatu dira eta hauen portzentajea kalkulatzeko $d_i(m) = 1$ duten etheen batura egin da emaitza moduan q_m aldagaia sortuz. Etxe kopuru totala n aldagaia izanik, pobrezian dauden etheen ehunekoa (H_m):

$$H_m = \frac{q_m}{n}$$

Horrez gain, D fitxategiko etxearen zeharkako pisua erabili da, izan ere, fitxategian elkarrizketatutako etxe bakoitzak zeroz bestelako igotze-faktore bat jasotzen du. Beharrezkoa da goratze-faktorea erabiltzea, lagin-datuak biztanleriari igotzeko eta biztanleriaren emaitzak lortzeko, horrela adierazten da aurretik aipatutako 2016ko bizi-baldintzei buruzko inkestako erabiltzaileen zeharkako fitxategian.

Beraz, emaitzen arabera etxeak hiru taldeetan sailkatu dira, pobrezia energetikoa adieraz dezaketen aldagai kopuruaren arabera: aldagai bakarra, bi aldagai edo hiru aldagai dituzten etxeak.

3.2.2 Pobrezia energetikoa sexuaren arabera

Atal honetan, helduen informazio zehatzarekin lan egin behar da, izan ere, familiaren euskarri nagusia aztertu da etxe bakoitzeko. Familiaren euskarri nagusiak aldi behin denon aurrekontuari egiten dion ekarpen ekonomikoa da gehien erabiltzen dena

familiaren gastuetarako, beste kide guztien ekarpenak baino gehiago. Horrela definitzen du Euskal Estatistika Erakundeak [12].

Horrenbestez, kalkuluak egiteko P fitxategiko datuak erabili dira H fitxategiko datuekin erlazionatuz, izan ere, pertsonen sexua PB aldagaien artean agertzen da.

Datu hauekin lehendabizi euskarri nagusiak gainerako gizartetik bereizi dira, geroago euskarri nagusien artean gizon-emakumeen ehunekoa aztertu da, eta ondoren beraien osasun-egoera pobrezia araberako hiru taldeetan sailkatu da. Beraz, herrialde bakoitzeko pobrezia energetikoaren aldagai kopuruaren arabera eta sexuaren arabera sailkapen berri bat lortu da, adibidez, pobrezia hiru adierazle dituzten Errumaniako gizonak eta adierazle bat duten emakume frantsesak bereiziz.

3.2.3 Pertsonen osasun-egoera pobrezia energetikoaren arabera

Pertsonen osasun-egoera PH fitxategian batzen diren aldagaiekin azter daiteke eta familien euskarri nagusien galdera hauen erantzunak analizatu dira, hain zuzen ere:

- Osasun egoera orokorra
- Ba al duzu gaixotasun edo osasun-arazo kronikorik?
- Azken 6 hilabeteetan, zer neurritan mugatu zara osasun-arazo baten ondorioz jendeak egin ohi dituen jarduerak egiteko?
- Azken 12 hilabeteetan, inoiz behar izan zenuen medikuarenera (dentistarenera izan ezik) joatea, baina ez zenuen egin?
- Medikuari kontsulta ez egiteko arrazoi nagusia (dentistarena izan ezik)

Galderen erantzunak pilatu ostean, aurretik egindako sailkapenetara egokitu dira, hau da, gizartearen osasun-egoera pobrezia energetikoaren aldagai kopuruaren arabera eta sexuaren arabera taldeetan aztertu da.

4. POBREZIA ENERGETIKOAREN AZTERKETA OROKORRA

Aurretik aipatu den moduan, pobrezia energetiko orokorra fakturen ordainketa, etxebizitzaren egoera eta etxea tenperatura egokian mantentzean oinarrituz kalkulatu da. Horregatik, herrialde bakoitzeko etxebizitzek pobrezia adieraz dezaketen zenbat aldagai dituzten begiratzuz grafikoetan hiru zutabe sortu dira, zutabe bakoitzak ondorengoa adieraziz:


- $m=1$, pobrezia energetikoaren adierazle bakarra
- $m=2$, pobrezia energetikoaren bi adierazle
- $m=3$, pobrezia energetikoaren hiru adierazle
-

Beraz, herrialde bakoitzeko pobrezia energetiko orokorraren analisia egin da kalkuluen emaitzak adieraziz, eta 4.4 atalean, Espainia, Frantzia eta Errumaniako egoeren arteko konparazioa egin da.

4.1 POBREZIA ENERGETIKOAREN AZTERKETA OROKORRA ESPAINIAN

2009ko pobrezia energetikoaren egoera 2017koarekin konparatu da atal honetan. Lehenengo urteko emaitzek Espainiako krisi ekonomikoaren ondorioak islatzen dituzte eta Espainiako 13661 etxeen datuekin lortu dira, 2017koek, aldiz, arazoa gainditu ondoren lortutako emaitzak eta hauek 13665 etxeen informazioarekin atera dira.

2009an Espainiako etxeen % 24,598k pobrezia adierazle bat dauka, aldiz, 2017an emaitza hori murrizten da, etxeen % 21,364a egoera horretan baitago. Pobrezia energetikoaren arazo larriena dutenen artean, aldiz, emaitzek gora egin dute lehenengo urtetik bigarrenera, hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan (4-1. Irudia):




Irudia 4-1. Pobrezia energetiko orokorra Espainian

4.2 POBREZIA ENERGETIKOAREN AZTERKETA OROKORRA FRANTZIAN

Herrialde honen pobrezia energetikoaren kalkuluak egiteko 2009ko 10604 etxeen eta 2017ko 10861 etxeen informazioarekin egin dira.

Emaitzek adierazten dute Frantzia denborak aurrera egin ahala, aztertzen ari garen urte-tartea kontuan hartuta, pobrezia energetikoa maila guztietan murriztu dela. Ondorengo irudian (4-2. irudia) ikus daiteke Frantziako etxeen egoera pobrezia energetikoari dagokionez:




Irudia 4-2. Pobrezia energetiko orokorra Frantzia

4.3 POBREZIA ENERGETIKOAREN AZTERKETA OROKORRA ERRUMANIAN

2009an, Errumaniako pobrezia energetikoa etxeen erdiei baino gehiagori eragiten dien arazoa da, berez, etxeen %65,964k pobrezia energetikoaren adierazleren bat du, gehiengoak adierazle bakarra badu ere (% 45,857a).

2017an, emaitzek egoera hobea adierazten dute orokorrean, hala ere, Errumaniako etxeen % 37,364k aztertutako arazoaren aldagaien bat dauka.

Kalkuluak 7746 datuekin egin dira 2009an eta 7367 datuekin 2017an.




Irudia 4-3. Pobrezia energetiko orokorra Errumanian


4.4 HIRU HERRIALDEEN POBREZIA ENERGETIKO OROKORRAREN KONPARAZIOA

Hiru herrialdeen emaitzei erreparaturik ikus daitezke Errumanian pobrezia energetiko gehiago pairatzen dela aztertutako beste bi herrialdeekin konparaturik. Batez ere 2009an aldea nabarmena da nahiz eta 2017an ere Espainiako eta Frantziako pobrezia eragiten emaitzak gaititu.

Aipatutako azken bi herrialde hauen arteko diferentzia antzekoa da 2009an eta 2017an, Espainiak pobrezia egoera txarragoa izanik bi urteetan. Hala ere, 2009tik 2017ra aztertutako hiru herrialdeen pobrezia murriztu egin da eta ondorengo grafikoetan (4-4. eta 4-5. Irudiak) ikus daitezke hiru herrialdeen arteko konparazioa:



Irudia 4-4. Espainia, Frantzia eta Errumaniako pobrezia energetiko orokorraren konparazioa, 2009an



Irudia 4-5. Espainia, Frantzia eta Errumaniako pobrezia energetiko orokorraren konparazioa, 2017an

5. POBREZIA ENERGETIKOAREN AZTERKETA SEXUAREN ARABERA

Atal honetan, aurretik adierazi den moduan, familien euskarri nagusiaren datuekin egin dira kalkuluak, beraz, P eta H fitxategiak erlazionatu behar izan dira bata besteari egokituz. Izan ere, P fitxategiak pertsona heldu bakoitzaren erregistroa du, banakako galdetegian jasotako aldagaiekin, eta H fitxategiak, berriz, etxe bakoitzeko erregistro bat. Beraz, orokorrean P fitxategia murriztu behar izan da, etxe bakoitzeko euskarri nagusiaren datuak mantenduz eta hauek H fitxategiko etxe bakoitzarekin erlazionatuz. Kasu bakoitzean datuen tratamenduak izan duen bolumen murrizketa tauletan adierazi da.

Bestalde, euskarri nagusien artean emakumeen eta gizonen proportzioa ageri da eta sexu bakoitzaren pobrezia energetikoaren kalkulua. Sexuaren arabera pobrezia energetikoa adierazteko grafikoak egin dira, emakume eta gizonen emaitzekin, 2009an eta 2017an. Grafiko horietan, emakumeen emaitzak urdinez adierazi dira eta gizonenak laranja, eta 2009koak kolore argiagoa daukate 2017koekin alderatuz.

Ondoren, 5.4. atalean, pobrezia energetikoa eta euskarri nagusien sexua herrialdeka aztertu ondoren, Espainia, Frantzia eta Errumaniaren arteko konparazioa egin da. Horretarako, grafikoak egin dira zenbait emaitza adierazgarri islatuz.

5.1 POBREZIA ENERGETIKOAREN AZTERKETA SEXUAREN ARABERA ESPAINIAN

Espainiako pobrezia energetikoaren emaitzak emakume eta gizonen artean sailkatu ahal izateko, aurretik azaldu den moduan, P eta H fitxategietako datuak egokitu behar izan dira ondorengo taulan, 5-1. taulan, ikus daitezkeen datu-bolumenen aldaketak eginez.

DATU-BOLUMENA ESPAINIA	Datuen tratamendua baino lehen		Datuen tratamenduaren ondoren	
	2009	2017	2009	2017
P fitxategia	30837	29295	13661	13665
H fitxategia	13361	13741	13661	13665


Taula 5-1. Espainiako P eta H fitxategien datu-bolumen originala eta tratatua

Bestalde, 2009ko 13661 datuen % 43,181a emakumeen erantzunak dira eta 2017an, 13665 datuen % 40,442a. Beraz, balio horiek Espainiako etxeen familien euskarri nagusien ehunekoak adierazten dituzte, urte batetik bestera emakume euskarri nagusien kantitatea murriztu egin dela adieraziz. 5-2. taulan ikus daitezke emakume eta gizonen portzentajeen balioak:

EUSKARRI NAGUSIA	Emakumeak	Gizonak
2009	% 43,181	% 56,819
2017	% 40,442	% 59,558

Taula 5-2. Espainiako familien euskarri nagusien sexuaren ehunekoa

Hortaz, sailkapen hori eginda egiaztatu da pobrezia energetikoaren emaitzak ez direla berdinak bi sexuentzat, eta kasu gehienetan onura gutxien jasotzen duen sexua berdina dela. Salbuespena 2017ko pobrezia energetikoaren hiru adierazle dituzten euskarri nagusien taldea da, horien artean emakumeak baino gizon gehiago baitaude (% 0,574 gizonak eta % 0,436 emakumeak). Bi eta hiru adierazle dituzten taldeen 2009ko datuak 5.1. irudiko grafikoan ikusten ez badira ere, 2017koak baino baxuagoak dira. Hala ere, emakumeen emaitzak gizonenak baino altuagoak dira kasu horietan.



Irudia 5-1. Espainiako familien euskarri nagusien pobrezia energetikoaren grafiko, sexuaren arabera. Goian 2009an eta behean 2017an

5.2 POBREZIA ENERGETIKOAREN AZTERKETA SEXUAREN ARABERA FRANTZIAN

Frantziako gizartearen P eta H fitxategien datu-bolumenak jasan dituen aldaketak 5-3. taulan, ikus daitezke.

DATU-BOLUMENA FRANTZIA	Datuen tratamendua baino lehen		Datuen tratamenduaren ondoren	
	2009	2017	2009	2017
P fitxategia	20233	20470	10604	10861
H fitxategia	10604	11069	10604	10861


Taula 5-3. Frantziako P eta H fitxategien datu-bolumen originala eta tratatua

Kasu honetan, familien euskarri nagusiak sexuaren arabera honako portzentajeak dituzte:

EUSKARRI NAGUSIA	Emakumeak	Gizonak
2009	% 43,889	% 56,107
2017	% 52,716	% 47,284

Taula 5-4. Frantziako familien euskarri nagusien sexuaren ehunekoa

Orokorrean, Frantziako familien euskarri nagusien pobrezia energetikoa murriztu da 2009tik 2017ra, soilik hiru adierazle dituzten gizonen pobrezia gora egin du denbora tarte honetan, baina aldea oso txikia da (2009an % 0,331 eta 2017an % 0,374). Bestalde, hobekuntza nabarmenenak emakumeek izan badute ere, azterketa kasu guztietan gizonek baino emaitza kazkarragoak dituzte. Gainera, nahiz eta 2017an familien euskarri nagusien artean emakume gehiago egon, urte horretan emakumeek pobrezia energetiko handiagoa jasan dutela adierazten dute emaitzek. Emaitza hauek 5-2. irudiko grafikoan ikus daitezke:



Irudia 5-2. Frantziako familien euskarri nagusien pobrezia energetikoaren grafikoa, sexuaren arabera. Goian 2009an eta behean 2017an

5.3 POBREZIA ENERGETIKOAREN AZTERKETA SEXUAREN ARABERA ERRUMANIAN

Errumaniako pobrezia energetikoaren kalkulua sexuen artean banatzeko datuak jasan duten tratamendua ondoren, P eta H fitxategien datu-bolumena hurrengo taulan (5-5. taula) ikus daiteke:

DATU-BOLUMENA ERRUMANIA	Datuen tratamendua baino lehen		Datuen tratamenduaren ondoren	
	2009	2017	2009	2017
P fitxategia	16283	15689	7746	7367
H fitxategia	7746	7367	7746	7367


Taula 5-5. Errumaniako P eta H fitxategien datu-bolumen originala eta tratatua

Familien euskarri nagusien sexua, oro har, gizona da aztertutako bi urteetan, ia euskarri nagusien % 70a gizonak baitira. 5-6. taulan 2009ko eta 2017ko euskarri nagusien ehunekoak ikus daitezke sexuen arabera.

EUSKARRI NAGUSIA	Emakumeak	Gizonak
2009	% 30,523	% 69,477
2017	% 30,424	% 69,576

Taula 5-6. Errumaniako familien euskarri nagusien sexuaren ehunekoa

Pobrezia energetikoaren egoera Errumanian nabari hobetu da 2009tik 2017ra, izan ere, pobreziaren bi adierazle dituzten gizon-emakumeen taldearen emaitzak erdira baino gehiago murriztu dira (2009an emakumeen % 22,517a eta gizonen % 13,069a egoera honetan dago; 2017an emakumeen % 8,423a eta gizonen % 6,124a) eta pobrezia energetikoaren ondorio larrienak jasaten dituen taldeak ere maila honetako murrizketak izan ditu lehengo urtetik bigarrenera (2009an emakumeen % 6,097a eta gizonen % 3,115a pobreziaren hiru; 2017an emakumeen % 1,735a eta gizonen % 1,551a). Horrez gain, emakumeek kasu guztietan emaitza txarragoak dituzte, gizonak baino energetikoki pobreagoak direla adieraziz. Hurrengo grafikoan, 5-3. irudian, emaitzak ageri dira:




Irudia 5-3. Errumaniako familien euskarri nagusien pobrezia energetikoaren grafikoa, sexuaren arabera. Goian 2009an eta behean 2017an

5.4 HIRU HERRIALDEEN SEXUAREN ARABERAKO POBREZIA ENERGETIKOAREN KONPARAZIOA

Hasteko, Espainia, Frantzia eta Errumaniako familien euskarri nagusien sexua konparatu da. Horretarako, 5-4. grafikoa egin da 2009ko eta 2017ko emaitzekin. Grafiko hau emakumeen emaitzekin egin da, beraz, agertzen ez diren gainerako ehunekoen aldea gizonena da.

Bakarrik 2017an Frantzian euskarri nagusi emakume gehiago dago gizonak baino, beste kasu guztietan familien euskarri nagusien gehiengoa gizonezkoa da. Bestalde, Errumaniako emaitzetan ikusten da sexuen arteko desberdintasunik handiena. Emaitzak ondorengo 5-4. irudiko grafikoan ageri dira:




Irudia 5-4. Hiru herrialdeetako familien emakume euskarri nagusien ehunekoen grafikoa, 2009 eta 2017an

Jarraitzeko, aztertutako hiru herrialdeen pobrezia energetikoa konparatu nahi izan da sexuaren arabera. Kolore argiz 2009ko emaitzak adierazi dira eta kolore ilunagoz 2017koak. Herrialde bakoitza kolore ezberdin batekin marraztu dira: berdez, urdinez eta horiz, Espainia, Frantzia eta Errumania hurrenez hurren. Gainera, emakumeen grafikoak lerro jarraiarekin egin dira eta gizonenak marra etenarekin.



2009ko grafikoari erreparatuz, 5-5. irudian, sexuen arteko alderik handiena Errumanian gertatzen da, eta txikiena, Espainian. Hala ere, hiruretan ematen da sexu-ezberdintasuna nahiz eta portzio desberdinetan ageri.

Pobrezia energetikoaren emaitzei dagokienez, Errumania da herrialderik kaltetuena. Izan ere, kasu guztietan Errumaniako gizonak (Errumanian kalte gutxien jasaten duen taldea) beste bi herrialdeetako emakumeak (kalte gehien jasaten dituzten taldeak) baino egoera larriagoa bizi dute, nahiz eta gizonek emakumeek baino emaitza hobeak izan.



Irudia 5-5. Espainia, Frantzia eta Errumaniako pobrezia energetikoa sexuaren arabera, 2009an. Goian emakumeak eta behean gizonak

2017ko emaitzek sexu-ezberdintasunari dagokionez joera berdina adierazten dute, nahiz eta pobrezia energetikoaren egoera orokorrean hobetu den. Kasu honetan, pobrezia energetikoaren emaitzak konparatuz, 2009an bezala, emakume eta gizonen arteko ezberdintasun handien duen herrialdea Errumania da, ordea, gutxien duena Frantzia da 2009an ez bezala.



Irudia 5-6. Espainia, Frantzia eta Errumaniako pobrezia energetikoa sexuaren arabera, 2017an. Goian emakumeak eta behean gizonak

6. PERTSONEN OSASUNAREN AZTERKETA POBREZIA ENERGETIKOAREN ARABERA

Lanaren atal honetan, pertsonen osasun-egoera aztertu da, izan dezaketen pobrezia energetikoaren mailaren arabera, horrela osasuna eta pobrezia energetikoa zuzenean lotu dira eta emaitzekin ondorioak atera ahal izan dira.

Emakume eta gizonen arteko banaketa egin da eta ondoren, pobrezia energetikoaren adierazle kopuruaren arabera banaketa berri bat egin da, pobrezia energetikoaren eta sexuaren arabera osasuna aztertu ahal izateko. Gainera, aurretik egin den moduan, datuen bolumena komentatzeko tauletan honi buruzko informazioa ageri da.

Esan beharra dago, lehenengo sailkapenean hiru talde nagusi egin direla pobrezia energetikoaren adierazle kopurua kontuan hartuta baina kasu honetan, adierazle bakarra duten pertsonak ez dira aztertu. Analisi honetarako ez da talde garrantzitsutzat jo, pertsona edo familia askok erraz izan baitezakete aipatutako adierazleetako bat (adibidez itoginak edo hezetasuna paretetan) eta pobrezia energetikoa sor dezakeen ondorio gehiagorik ez pairatu.

Aipatzekoa da ere, aztertzen ari diren pobreziaren hiru adierazleak dituen taldeak ("m=3" taldea) datu-bolumen txikia duela, beraz, emaitzen portzentajeak baliteke gehiengoaren adierazgarri ez izatea. Horregatik, nahiz eta emaitza interesgarriak eman ditzakeen taldea izan, analisi honetatik baztertzea erabaki da. Beraz, "m=0" eta "m=2" taldeak aztertu dira, talde batek pobrezia energetikotik salbuetsitako pertsonak adierazten ditu, eta beste taldeak, aldiz, egoera horren ondorioak jasan ditzaketen pertsonak batzen ditu.

Beraz, lehenengo, herrialde bakoitzaren hiritar guztien osasun-egoera aztertu da, eta geroago, aurretik aipatutako sailkapenen arabera emaitzak atera dira.

6.1 PERTSONEN OSASUNAREN AZTERKETA POBREZIA ENERGETIKOAREN ARABERA ESPAINIAN

Hasteko, Espainiako gizarte orokorraren adierazgarri gisa familien euskarri nagusien osasuna aztertu da.

Analisi hau, aurretik azaldutako sailkapenen arabera egin da eta hurrengo taulan (6-1. taula) datu-bolumenari buruzko informazioa dago. Taulan (6-x. taula) agertzen diren balioak aurreko 5.1 ataletik abiatuta lortutako datu-bolumenak dira (2009an 13661 datu eta 2017an 13665) sexuen arabera eta pobrezia energetiko mailaren arabera sailkapena egin ondoren.

DATU-BOLUMENA	2009		2017	
	Emakume	Gizon	Emakume	Gizon
m=0	4246	5818	4214	6576
m=2	269	278	267	324
m=3	30	24	26	47


Taula 6-1. Espainiako datu-bolumena sexu eta pobrezia energetikoaren adierazle kopuruaren arabera, 2009 eta 2017an

Taulan aurretik aipatutako pobrezia hiru adierazleak dituzten pertsonen multzoaren emaitzekin izan den arazoa islatzen da; izan ere, lantzen ari garen datu-bolumenak emaitza orokorrak behar bezala islatzen dituen arren, kasu honetan txikiegia da, eta horregatik neurrigabeko ehunekoak sortzen dira, eta baliteke errealitatearekin guztiz bat ez etortzea. Hala ere, lanaren atal honen helburua herritarren osasun-egoera pobrezia energetikoarekin zuzenean erlazionatzea da, eta helburu hori lortzeko, 0 adierazle dituzten pertsonen emaitzak 2 adierazle dituztenen emaitzekin alderatu dira.

Emakumeen eta gizonen artean banatutako gizarte osoaren emaitzak honako hauek dira 2009an: osasun egoera orokorrari buruz Espainiako gizonen % 67,158k uste du osasun ona edo oso ona duela, emakumeen artean % 57,757k. Aldiz, emakumeen %13,902k dio osasun egoera txarra edo oso txarra duela, eta gizonen % 8,550a egoera horretan dago. Gainera, emakume gehiagok du gaixotasun kronikoren bat, gizonek baino % 7 gehiago eta horrez gain, emakumeak gizonak baino mugatuago sentitzen dira jendeak normaltzat jotzen dituen jarduerak egiteko, gizonak baino % 9,265 emakume gehiago hain zuzen. Bestalde, emakumeen eta gizonen ehuneko ia berak (emakumeak % 10,071 eta gizonak % 9,933) medikuarenera joan behar izan du azken urtean, baina ez du egin. Arrazoi nagusiak denbora falta edo arazoa denborarekin hobetzen uztea dira.

2017an emaitzak 2009ko joera berdina daukate gizon-emakumeen arteko diferentzietan dagokienez, hau da, emakumeen osasun-egoera, aztertutako parametroei erreparatu, kasu guztietan emaitza txarragoak ditu gizonen emaitzekin konparatuta. Hala ere, orokorrean emaitzak gorantz joan dira osasun egoera hobea adieraziz. Adibidez, orokorrean osasun egoera ona duten emakumeak 2017an % 62,776 dira eta gizonak % 70,988. Beraz, emaitzak 2009koak baino hobekiak dira, baina sexuen arteko desberdintasuna islatzen jarraitzen dute.

Hurrengo grafikoekin parametro berdinak aztertu dira, baina oraingoan pobrezia 0 eta 2 adierazle dituzten taldeekin. Emaitzek erakusten dute pobrezia energetikorik ez duten pertsonen biztanleria osoak baino osasun hobea dutela, 2009an emakumeen % 61,799a osasun ona edo oso ona dute eta gizonen % 70,712a, eta 2017an emakumeen % 66,065a eta gizonen % 73,495a; aldiz, pobrezia energetikoa pairatzen duen taldeak emaitza kezkagarriagoak ditu, emakumeen % 37,546ak eta gizonen % 48,921ak dio osasuntsua dela 2009an eta 2017an emakumeen % 53,184ak eta gizonen % 53,395ak. Osasun txarra edo oso txarra energetikoki pobre direnen artean ohikoago da, izan ere 2009an emakumeen % 23,420ak eta gizonen % 19,784ak dio ez dela osasuntsu sentitzen eta 2017an emakumeen % 20,599ak eta gizonen % 14,506ak. Pobrezia pairatzen ez dutenek, aldiz, emaitza baxuagoak dituzte grafikoan ikus daitekeen moduan, osasun hobea adieraziz.



Irudia 6-1. Ezkerrean osasun ona edo oso ona duten pertsonak, eskuinean osasun txarra edo oso txarra duten pertsonak pobrezia energetikoaren arabera Espainian 2009 eta 2017an

Grafikoetan ikus daiteke nola kasu guztietan 2009tik 2017ra bi taldeko pertsonen osasuna orokorrean hobetu den, baita nola beti gizonen emaitzak emakumeenak baino hobeak diren.

Pobrezia energetikoa pairatzen duten pertsonen beste datu interesgarri batzuk hauek izan daitezke: ohikoagoa da haientzat gaixotasun kronikoak izatea, 2009an % 44,451, aldiz, pobrezia energetikoaren adierazlerik ez dituen taldearen % 36,097a; normalizat jotzen diren jardueran egiteko mugatuagoak sentitzen dira, 2017an % 35,085a eta pobreziarik gabeko taldean % 20,852a; nabarmentzekoa da ere, 2009an pobrezia-egoeran zeuden pertsonen % 21,926a ez zuela kontsulta medikorik jaso, beste taldean, aldiz, % 8,917a.

6.2 PERTSONEN OSASUNAREN AZTERKETA POBREZIA ENERGETIKOAREN ARABERA FRANTZIAN

2009ko datuak 10604 dira eta 2017koak 10861, beraz datu kantitate horiek izan dira hurrengo taularen abiapuntua sexu eta pobrezia energetikoaren araberako sailkapena egiteko:

DATU-BOLUMENA	2009		2017	
	Emakume	Gizon	Emakume	Gizon
m=0	3589	4953	4681	4253
m=2	220	166	210	140


Taula 6-2. Frantziako datu-bolumena sexu eta pobrezia energetikoaren adierazle kopuruaren arabera, 2009 eta 2017an

Frantziako gizarte orokorraren osasun egoera 2009tik 2017ra txarrera joan dela esan daiteke, osasun txarra edo oso txarra duten pertsonen ehunekoak mantendu dira (2009an emakumeen % 11,023a eta gizonen % 9,329a, 2017an emakumeen % 10,445a eta gizonen % 9,973a), ostera, osasun ona edo oso ona dutenen portzentajeak murriztu egin dira (2009an emakumeen % 61,431 eta gizonen %66,667 eta 2017an emakumeen % 59,581 eta gizonen % 61,967). Hala ere, gizonen osasun egoera emakumeena baino hobeagoa dela adierazten dute emaitzek aztertutako bi urteetan.

Pobrezia energetikoa osasunarekin erlazionatzeko ondorengo grafikoa egin da, Frantzian pobrezia energetikoaren adierazleak dituen taldea, arazo hau ez duen pertsona taldearekin alderatuz, 2009 eta 2017ko datuekin. Alde batetik, osasun ona edo oso onaren emaitzak aztertu dira eta ikus daiteke orokorrean 2009an pobreziarik pairatzen ez duen taldeak emaitza hobeak dituela, batez ere talde horretako gizonen. 2017an,


nahiz eta grafikoan argi ez ikusi, pobrezia-aren adierazlerik ez dituen taldearen osasun egoera okerragoa da (emakumeen % 59,752k osasun ona dutela diote eta gizonen % 61,736), energetikoki pobre direnak, aldiz, osasuntsuago sentitzen dira 2017an, hala ere, hauen emaitzak beste taldearenak baino txarragoak dira.

Osasun txarra edo oso txarraren grafikoak orokorrean emaitza berdintsuak adierazten ditu, izan ere, bai 2009an, bai 2017an osasun egoera okerragoa daukate pobreek. Batez ere nabarmena da ezberdintasuna 2009an: pobrezia-aren adierazleak ez dituen taldearen emakumeen % 9,390a ez da osasuntsu sentitzen, aldiz, emakume pobreen % 25,455a horrela sentitzen da.



Irudia 6-2. Ezkerrean osasun ona edo oso ona duten pertsonak, eskuinean osasun txarra edo oso txarra duten pertsonak pobrezia-aren adierazle kopuruaren arabera Frantzian 2009 eta 2017an

Bestalde, analisiaren bi urteetako emaitzetan ikus daiteke gaixotasun kronikoak pobreen artean ohikoagoak direla, batez ere emakumeen artean. Hauen ere dira muga gehien dituztenak eguneroko jarduerak egiteko. Gainera, noizbait behar izan badute ere, energetikoki pobre diren pertsonen % 23,417a ez da medikuarenera joan 2009an eta beste taldean, berriz, pertsonen % 4,701a dago egoera horretan. Arazo honen arrazoi nagusia arrazoi ekonomikoak izan dira batez ere emakume pobreen artean, hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan.



Irudia 6-3. Pobrezia energetikoa dutenen eta ez dutenen arteko konparazioa, medikuarenera joan beharra izan eta joan ez izanaren arrazoi nagusien artean, 2009an Frantzian

Energetikoki pobre den taldearen arrazoi nagusia ekonomikoa izan da, beste taldean, aldiz, beste arrazoi batzuk agertzen dira emaitzetan, hala nola denbora falta edo arazoa denborarekin hobetzen uztea.

6.3 PERTSONEN OSASUNAREN AZTERKETA POBREZIA ENERGETIKOAREN ARABERA ERRUMANIAN


Errumanian 2009ko 7746 datuetatik eta 2017ko 7367 datu kantitatetik ondorengo taulan, 6-3. taulan, ikus daitezken datu-bolumenak lortu dira sexu eta pobrezia energetikoaren mailaren arabera:

DATU-BOLUMENA	2009		2017	
	Emakume	Gizon	Emakume	Gizon
m=0	1058	3118	1427	3804
m=2	543	746	202	326

Taula 6-3. Errumaniako datu-bolumena sexu eta pobrezia energetikoaren adierazle kopuruaren arabera, 2009 eta 2017an

Errumaniako populazioaren osasun-egoerari dagokionez, hurrengo emaitzak lortu dira: gizon gehiagok uste du osasun ona edo oso ona duela, 2009an eta 2017an % 60 baino gehiagok, emakumeek aldiz, 2009an % 31,472k eta 2017an % 35,609k. Osasun txarra edo oso txarraren emaitzek bera erakusten dute, emakumeek osasun okerragoa dutela eta 2017an gehiengoaren osasun-egoera hobetu egin dela.

Pobrezia energetikoa duten biztanleen kasuan, 2009an emakumeen % 22,284a osasun ona edo oso ona duela esaten du eta gizonen % 51,340, 2017an % 21,782a eta % 50,920a hurrenez hurren. Pobrezia jasaten ez duen taldean, berriz, emakumeen % 39,319a eta gizonen % 65,234a osasuntsu sentitzen da 2009an eta 2017an emakumeen % 41,065 eta gizonen % 63,013. Osasun txarra edo oso txarra dutela sentitzen duten herritarren emaitzek joera berdina adierazten dute, hau da, energetiko pobre direnak osasun-egoera txarragoa dutela. Ondorengo grafikoan, 6-4. irudian, emaitza horiek ikus daitezke:




Irudia 6-4. Ezkerrean osasun ona edo oso ona duten pertsonak, eskuinean osasun txarra edo oso txarra duten pertsonak pobrezia energetikoaren adierazle kopuruaren arabera Errumanian 2009 eta 2017an

Gaixotasun kronikoen portzentajeak erakusten du analisiaren bi urteetan emakume pobre gehiagok duela horrelako osasun arazoak gizonekin konparatuz, adibidez 2017an emakumeen % 67,822a eta gizonen % 35,276a, gainera, emaitza hauek 2009koak baino txarragoak dira. Emakume horiek berak dira medikura gutxien doazenak behar izanda ere.

6.4 HIRU HERRIALDEETAKO OSASUN-EGOERAREN KONPARAZIOA, POBREZIA ENERGETIKO MAILAREN ARABERA

Espainia, Frantzia eta Errumaniako herritarren osasun-egoera konparatzeko osasun okerra adierazten duten aldagaien emaitzak grafikoetan erakusten dira: osasun orokor txarra edo oso txarra edukitzea, gaixotasun kronikoak izatea, eguneroko jardueretan fisikoki mugatua sentitzea eta medikuarenera joan ez izatea behar izanda ere.


Urdinez emakumeen datuak adierazi dira eta laranja gizonenak, gainera, pobrezia energetikoa pairatzen dutenen emaitzek kolore ilunagoa dute. Hurrengo grafikoan, 6-5. irudian lortutako emaitzak daude:



Irudia 6-5. Goian: ezkerrean, osasun txarra edo oso txarra duten pertsonen ehunekoak; eskuinean, gaixotasun kronikoak dituzten pertsonen ehunekoak. Behean: ezkerrean, normaltzat jo daitezkeen jarduerak egiteko mugatuak sentitzen diren pertsonen ehunekoak; eskuinean, behar izan badute ere medikuari kontsulta egin ez dioten pertsonen ehunekoak. Laurak pobrezia energetikoa adierazle kopuruaren eta sexuaren arabera Espainian, Frantzian eta Errumanian 2009an

Kasu guztietan, energetikoki pobreak diren pertsonen osasun egoera okerragoa dute eta horien artean, emaitza okerrenak Errumaniako emakumeenak dira. Gainera, herrialde horretan bakarrik ikusten dugu pobrezia energetikorik gabeko emakumeek pobrezia pairatzen duten gizonen emaitzak gainditzen dituztela, hau da, gizon pobreak baino osasun-egoera kezkagarriagoa dutela.

Hurrengo grafikoa (6-6. irudia) aurrekoa bezalakoa da, baina 2017ko datuak erabiliz egin da. Emaitzek joera berdina erakusten dute, pobreek emaitza okerragoak eta Errumaniako emakumeek ondorio nabariak. Hona hemen aipatutako datuen grafikoa:



Irudia 6-6. Goian: ezkerrean, osasun txarra edo oso txarra duten pertsonen ehunekoak; eskuinean, gaixotasun kronikoak dituzten pertsonen ehunekoak. Behean: ezkerrean, normaltzat jo daitezkeen jarduerak egiteko mugatuak sentitzen diren pertsonen ehunekoak; eskuinean, behar izan badute ere medikuari kontsulta egin ez dioten pertsonen ehunekoak. Laurak pobrezia-aren adierazle kopuruaren eta sexuaren arabera Espainian, Frantzia eta Errumanian 2017an

7. ONDORIOAK

Lan honetan egindako azterketa eta kalkuluetatik abiatuta, hainbat alderditatik atera ditzakegu ondorioak: Europar Batasuneko hiru herrialdeen arteko pobrezia energetikoaren ezberdintasuna, pobrezia energetikoa eta osasun-egoeraren arteko erlazioa eta genero-disparekotasuna besteak beste.

Alde batetik, aipatutako azken gaiari dagokionez, azterketa honetan pertsonen generoaren arabera analisi egin nahi izan bada ere, ez da posible izan, bizi-baldintzei buruzko inkestan batzen diren datuak sexuari erantzuten baitiote, emakume edo gizon izateko aukerak eskainiz. Beraz, jakinda pertsonak ez dutela zertan beren sexuari esleitu ohi zaion generoarekin identifikatu, ondo egongo litzateke bizi-baldintzei buruzko inkestako galderak eguneratzea gizarteak egiten duen aldi berean, gizartearen errealitatera egokituz. Gainera, interesgarria izango litzateke talde horri buruzko datuak jasotzea, faktore horrek pobrezia energetikoarekin izan dezakeen lotura egiaztatzeko, lan honetan osasun-egoerarekin edo beste lan batzuetan beste gizarte-gai askorekin lotu izan den bezala. Hala ere, eskura ditugun datuekin egin ahal izan diren kalkuluen arabera, gizonen eta emakumeen arteko aldea aztertutako atal bakoitzean existitzen dela ikusten da, gainera, familien euskarri nagusia gutxitan izaten da emakume bat. Beraz, esan daiteke bereziki emakumeek pobrezia energetikoarekiko zaurgarritasuna dutela.

Bestalde, herrialde bakoitzeko hiritarren osasun-egoera konparatu nahi izan da pobrezia energetikoarekin lotuz. Hiru herrialdeek osasun-sistema bera balute izango zen haiek konparatzeko modurik onena, baina ez da horrela eta emaitzetan egiaztatu ahal izan dugu. Izan ere, Frantziako osasun sistema Bismarck ereduakoa da. Eredu horretan, osasun-zerbitzuak langileen eta enpresaburuaren kuotek finantzatzen dituzte. Osasun zerbitzuetarako eskubidea lanarekin lotuta dago eta zerbitzuak estatuak gainbegiraturako aseguru pribatuen bidez ematen dira [13]. Beraz, osasun-zerbitzuak hiritarren lan postuarekin lotuta daudenez, ondorioz, egoera ekonomikoari eta, askotan, energia-pobrezia daude lotuta ere bai. Errumanian, aldiz, osasun sistema publikoa doakoa da aseguraturako eta Osasun Ministerioak araututako zergadun guztientzat. Nahiz eta aseguraturako pertsona guztiek osasun zerbitzu publikoa izan, *Romania: health system review* artikulua arabera, zerbitzu horiek eskuratzeko desberdintasunak daude landa-ingurune eta hirigunean bizi diren pertsonen artean esaterako [14]. Espainian, 1978ko Espainiako Konstituzioak, herritar guztien osasuna babesteko eta osasun-arretarako eskubidea ezartzen du. Eskubide horren ezaugarrien artean nagusia: finantzaketa publikoa, unibertsaltasuna eta doakotasuna erabiltzeko unean [15].

Hau jakinda, uler daitezke frantsesak kontsulta medikora ez joateko arrazoien diferentzia energetikoki pobreak direnen eta ez direnen artean, nahiz eta Frantzia hiru herrialdeen artean osasun-gastu handiena duen. Errumanian, aldiz, osasunean gastu gutxien duen Europako herrialdea izanik, ez da Espainia edota Frantziako emaitzetatik urrun geratzen pobre ez diren hiritarren osasun-egoeraren emaitzak erreparatzekotan, zeren emaitza orokorrekin alderatzekotan, hau da, pobreen eta ez-pobreen emaitzak kontuan hartzen badira, aldea nabarmena da beste herrialdeekiko. Beraz, esan daiteke desberdintasun sozial nabaria duen herrialdea dela pertsonen osasun-egoera aztertu ondoren. Atal honen ondorioekin bukatzeko, Espainiako hiritarren osasun-egoeraren emaitzek ere gizarte-desberdintasuna dagoela adierazten dute, orokorrean Frantziakoak baino gehiago eta

Errumaniakoak baino gutxiago, emakumeen eta gizonen arteko aldeaz gain. Baina nabarmentzekoa da beste bi herrialdeekiko aldea, kontsulta medikoetara joateari dagokionez; izan ere, Espainiako hiritarren ehuneko oso txikia ez da kontsulta mediku batera joaten mota honetako zerbitzuak behar dituzenean, beste bi herrialdeekin konparatuz.

Bukatzeko, pobrezia energetikoa gehien pairatzen duen herrialdea Errumania da. Errumaniak klima hotzak ditu, eta berokuntzarako energia asko kontsumitzen da. EBko batez bestekoaren oso azpitik dagoen batez besteko errentarekin batera (EBko batez bestekoaren erdia baino gutxiago 2015. urtean), energia-gastura bideratzen den errentaren proportzioa askoz handiagoa da. Hala ere, pobrezia energetikoari aurre egiteko, diru-sarrera txikiak dituzten etxeei finantza-laguntzak ematen zaizkie energia-fakturak ordaintzeko. Gainera, neguan Errumaniako Gobernuak laguntza ematen die etxeei berokuntza-fakturak ordaintzeko, eta gutxieneko errenta ematen die diru-sarrera txikiak dituzten etxeei gutxieneko bizi-maila bermatzeko. [16]

Pobrezia energetiko gutxien duen herrialdea, aldiz, Frantzia da. Izan ere, Frantzia da herrialde aktiboenetako bat pobrezia energetikoaren arloko ikerketa eta politikari dagokionez eta arazoari aurre egiteko politika ugari aplikatu dira. Hainbat programa daude etxeko eraginkortasun energetikoa hobetzeko, eta finantzazio-programa horietako asko gobernu nazionalen, eskualdekoen eta tokiko bidez aplikatzen dira. Energia-auditoretzako programak ere interesa duten alderdiek aplikatzen dituzte, hala nola gobernu kanpoko erakundeek, eragile pribatuek eta gobernuak, etxeetan energia aurrezteko aholkuak emateko. Era berean, etxeetan energia aurrezteari buruzko informazio gehiago eskuratzeko hainbat leku eskaintzen dituzte [17].

Azkenik, Espainia aurreko bi herrialdeen erdian kokatzen da pobrezia energetikoari dagokionez. Espainiako Gobernuaren Pobrezia Energetikoaren aurkako Estrategia Nazionalaren onartu zuen eta honen helburua da "energia eskuragarria, segurua, jasagarria eta modernoa guztientzako izatea bermatzea". Estatuan, energia-pobrezia aurre egiteko neurri nagusietako bat elektrizitateko bonu soziala da, 2009an ezarri zena eta 2018an, berokuntzarako bonu sozial berria sortu zen. Gainera, eraikinak zaharberritzeko lege bat ere badago, eta, horren bidez, energia-eraginkortasunerako neurriak lehenesten dira energia-pobrezia ekoera larrietan [18].

8. ERANSKINAK

2009an eta 2017an Espainia, Frantzia eta Errumaniako pobrezia energetikoaren ehunekoak:

2009	m=1	m=2	m=3
ESPAINIA	% 24,598	% 4,248	% 0,403
FRANTZIA	% 20,139	% 3,880	% 0,456
RUMANIA	% 45,857	% 16,051	% 4,056

Taula 8-1. Espainia, Frantzia eta Errumaniako pobrezia energetiko orokorraren emaitzak, 2009an

2017	m=1	m=2	m=3
ESPAINIA	% 21,303	% 4,387	% 0,529
FRANTZIA	% 17,824	% 3,260	% 0,456
RUMANIA	% 28,958	% 6,801	% 1,605

Taula 8-2. Espainia, Frantzia eta Errumaniako pobrezia energetiko orokorraren emaitzak, 2017an

2009an eta 2017an familien euskarri nagusien sexuen ehunekoak:

2009	Emakumeak	Gizonak
ESPAINIA	% 43,181	% 56,819
FRANTZIA	% 43,889	% 56,107
RUMANIA	% 30,523	% 69,477

Taula 8-3. Espainia, Frantzia eta Errumaniako familien euskarri nagusien ehunekoak sexuaren arabera, 2009an

2017	Emakumeak	Gizonak
ESPAINIA	% 40,442	% 59,558
FRANTZIA	% 52,716	% 47,284
RUMANIA	% 30,424	% 69,576

Taula 8-4. Espainia, Frantzia eta Errumaniako familien euskarri nagusien ehunekoak sexuaren arabera, 2017an

2009an eta 2017an familien euskarri nagusien artean, emakumeen eta gizonen pobrezia energetikoaren ehunekoak:

2009	EMAKUMEAK			GIZONAK		
	m=1	m=2	m=3	m=1	m=2	m=3
ESPAINIA	% 25,990	% 4,700	% 0,455	% 23,541	% 3,905	% 0,363
FRANTZIA	% 23,625	% 4,998	% 0,612	% 17,344	% 2,984	% 0,331
RUMANIA	% 54,907	% 22,517	% 6,097	% 41,682	% 13,069	% 3,115

Taula 8-5. Espainia, Frantzia eta Errumaniako familien euskarri nagusien sexuaren arabera, pobrezia energetikoaren emaitzak, 2009an

2017	EMAKUMEAK			GIZONAK		
	m=1	m=2	m=3	m=1	m=2	m=3
ESPAINIA	% 23,760	% 4,691	% 0,436	% 19,763	% 4,204	% 0,574
FRANTZIA	% 18,716	% 3,873	% 0,510	% 16,879	% 2,624	% 0,374
RUMANIA	% 36,242	% 8,423	% 1,735	% 25,915	% 6,124	% 1,551

Taula 8-6. Espainia, Frantzia eta Errumaniako familien euskarri nagusien sexuaren arabera, pobrezia energetikoaren emaitzak, 2017an

2009an Espainian, orokorrean familien euskarri nagusien osasun-egoerari buruzko ehunekoak:

OSASUNA OROKORREAN		
ESPAINIA 2009	EMAKUMEAK	GIZONAK
Oso ona	% 10,591	% 11,777
Ona	% 47,166	% 55,381
Normala	% 28,029	% 23,686
Txarra	% 10,504	% 6,613
Oso txarra	% 3,397	% 1,937
Erantzunik gabe	% 0,312	% 0,606

Taula 8-7. Espainiako hiritarren osasun-egoera orokorra sexuaren arabera, 2009an

GAIXOTASUNAK EDO OSASUN ARAZO KRONIKOAK		
ESPAINIA 2009	EMAKUMEAK	GIZONAK
Bai	% 41,654	% 34,725
Ez	% 58,034	% 64,682
Erantzunik gabe	% 0,312	% 0,593

Taula 8-8. Gaixotasun edo arazo kronikoak dituzten Espainiako hiritarren ehunekoak sexuaren arabera, 2009an

OHIKO JARDUERAREN BAT EGITEKO MUGATUA SENTITZEA		
ESPAINIA 2009	EMAKUMEAK	GIZONAK
Oso mugatua	% 7,904	% 5,625
Mugatua	% 27,682	% 20,696
Ez mugatua	% 64,101	% 73,087
Erantzunik gabe	% 0,312	% 0,593

Taula 8-9. Ohiko jarduerak egiteko mugatuta sentitzen diren Espainiako hiritarren ehunekoak sexuaren arabera, 2009an

AZKEN URTEAN, INOIZ BEHAR IZAN ZENUEN MEDIKUARENGANA JOATEA, BAINA EZ ZENUEN EGIN?		
ESPAINIA 2009	EMAKUMEAK	GIZONAK
Bai	% 10,071	% 9,933
Ez	% 89,617	% 89,474
Erantzunik gabe	% 0,312	% 0,593

Taula 8-10. Azken urtean behar izanda ere, medikuarenera joan ez diren Espainiako hiritarren ehunekoak sexuaren arabera, 2009an

MEDIKUARENGANA JOAN EZ DIREN ARTEAN, ARRAZOIAK		
ESPAINIA 2009	EMAKUMEAK	GIZONAK
Arrazoi ekonomikoa	% 4,647	% 1,459
Itxarote zerrendan egotea	% 1,549	% 2,255
Denbora falta izatea lana, haurrak edo beste pertsona batzuk zaintzeagatik	% 26,334	% 25,729
Distantzia	% 1,377	% 0,398
Medikuei beldurra	% 8,090	% 7,560
Arazoa denborarekin hobetzen uzteagatik	% 34,596	% 39,125
Medikurik ez ezagutzeagatik	% 1,033	% 0,796
Beste arrazoiren batengatik	% 22,375	% 22,679

Taula 8-11. Espainiako hiritarrek medikuarenera ez joateko arrazoien ehunekoak sexuaren arabera, 2009an

2017an Espainian, orokorrean familien euskarri nagusien osasun-egoerari buruzko ehunekoak:

OSASUNA OROKORREAN		
ESPAINIA 2017	EMAKUMEAK	GIZONAK
Oso ona	% 12,106	% 14,328
Ona	% 50,670	% 56,660
Normala	% 26,638	% 22,045
Txarra	% 8,252	% 5,284
Oso txarra	% 2,190	% 1,401
Erantzunik gabe	% 0,145	% 0,283

